

## HAREA ERLOJUA

### Parte hartzaileak

+2

### Garapena

Harea erlojua aurkeztuko dugu taldearen aurrean. Dinamika honetan, pertsona bakoitzak hitz egiteko zenbat denbora duen neurtzeko, objektu hori erabiliko dugula azalduko dugu.

Martxan jarriko dugu harea erlojua, taldeak denbora nola igarotzen den ikus dezan.

Pertsona bat hizketan ari den bitartean, besteek isil-isilik entzun beharko diote, ezertarako esku hartu gabe. Hark bukatzean, hitz egin nahi dutenek harea erlojua eskatu beharko dute aurrena (txandak aldeztatik hitzartuta ez badaude). Oraindik hitz egin ez dutenek izango dute lehentasuna.

### Antolaketa

Dinamika aurkeztu aurretik, ondoan edo eskuetan hartuko dugu harea erlojua. Taldea biribilean jarriko da, denek ondo ikusi eta entzuteko modua izan dezaten.

### Jolas eremua

Edozein.

### Denbora

5 minutu.

### Materiala

Harea erloju bat.

### Aldaerak

Harea erloju baten ordeztu, kronometro digital bat erabil daiteke.

### Gomendioak

Erabili dinamika hau parte hartzaileek hizketaldi luzeak egin behar dituzten jardueretan edo hitz egiteko eta entzuteko txandak errespetatzea zaila gertatzen den eztabaidetan.

### Ebaluazioa

Erreparatu ea hizlariak harea erlojuak markatutako denbora errespetatzen duten eta gainerako parte hartzaileak adi dauden.